

LABORAL KUTXA LEASING

Eskatzailea

Kontratu honek hainbat abantaila ekartzen ditu finantza eta zergen alorretan eta bi kontzeptu eransten ditu kuota bakoitzean: ondasunaren amortizazioa eta finantzazama.

ABANTAILAK

- BEZaren ordainketa geroratzea.
- Dedukzioa egin daiteke kuotan hala badagokio, aktibo finko berrietan inbertitzeagatik.
- Zure inbertsioen aurrekontua eta errentagarritasuna kontrola ditzakezu.
- Malgutasuna leasinga mugaeguneratzean:
 - Hondar-balioaren azken kuota ordaintzeko eta, horrela, ondasuna eskuratzeko aukera ematen du.
 - Ekipamendua berritzeko aukera ematen du, beste leasing bat finantzatzuz eta aurrekoa banatzaileari kontura emanaz.

LEASING MODALITATEAK

Higigarrien leasinga:

Enpresa-jarduera eta lanbidea garatzeko balio duten ekipamendu-ondasun guztiak (makinak, garraioko elementuak, material informatikoa, osasun-ekipamenduak eta abar) finantzatzeko erabiltzen da.

Ezaugarriak:

- Epea: 2 eta 5 urte bitartean.
- Interes-tasa: finkoa edo aldakorra.
- Modalitateak:
 - Automozioko leasinga.

- Ekipamendu-ondasunen leasinga.
- Eraikitze-bideko ekipamendu-ondasunen leasinga.
- Leasing profesionala

Higiezin leasinga:

Finantza-errentamendupean finantzatzeko formula bat da. Horren bidez **eraikitako ondasun higiezinak finantzatu** ahal dira, baita jarduerari lotutako eraikitze-bidekoak ere. Finantzaketa mota horretarako legez ezarritako epe minimoa 10 urtekoa da.

Ezaugarriak:

- Epea: 10 eta 15 urte bitartean.
- Modalitateak:
 - Industria-higiezinak: eraikinak, nabeak, urbanizazioak.
 - Merkataritza-higiezinak: merkataritza-lokalak, lonjak, biltegiak, merkataritza-departamentuak, bulego profesionalak.
 - Zerbitzu-higiezinak: bulegoak, agentziak, hotelak, apartamentuak, klinikak, osasun-zentroak.
 - Higiezin bereziak: zentral hidroelektrikoak.

Leasing operatiboa:

Marka ospetsuko ekipamendu-ondasunak eta industria-ibilgailuak finantzatzeko bidea da. Ondasun horiek erosteko aukeraren balioa garestia da, kontratuaren bukaeran ondasun horien kontabilitate-balioaren antzekoa edo garestiagoa. Nahitaezkoa da aseguruia eta mantentzea egitea.